

## 1- ENTZUN AURRETIK

1.1 Nolako turista zara?   

Inkesta honen galderari erantzun:

Nola prestatzen dituzu zure oporrak?

- Lekuari buruzko informazio asko lortzen dut.
- Leku hori bisitatu duen norbaitekin hitz egiten dut.
- Gida edo mapa bat erosten dut.
- Telefonorako aplikazioa jaisten dut.
- Inprobisatzen dut, ez zait gustatzen planifikatzea.



Besterik? Idatzi zer egiten duzun: \_\_\_\_\_



Zer egiten duzu galtzen zarenean?

- Udaltzain/polizariari galdetzen diot.
- Kalean galdetzen dut, ikusten dudana pertsonaren bati.
- Inor molestatu gabe konpontzen saiatzen naiz.

Besterik? Idatzi zer egiten duzun: \_\_\_\_\_

Nola hartzen dituzu turistak zure herrian?

- Turismo-bulegora edo udaltzainengana bidaltzen dut zuzenean.
- Lekua ondo ezagutzen badut, laguntzen saiatzen naiz.
- Ez diot kasurik egiten. Nazkatuta nago turistekin, gogaikarriak dira.

Besterik? Idatzi zer egiten duzun: \_\_\_\_\_



  Komentatu zure erantzunak lagun batekin.

  Talde handian komentatu erantzunak.

## ENTZUN BITARTEAN

### 2.1 Galderei erantzun

  Entzun Josu eta Alexen arteko elkarrizketaren lehen zatia eta galderei erantzun:

#### 1.- Nork egingo ditu gaur erosketak?

- Josuk eta Amaiak.
- Josuk eta Alexek.
- Josuk bakarrik.



#### 2.- Zer esan du Alexek?

- Ez zaiola batere gustatzen erosketak egitea.
- Nahiago duela erosketak egin erratza pasatu baino.
- Karga handia eraman beharko dutela.

#### 3.- Zer jartzen du zerrendan eta nork prestatu du?

- Fruta eta barazkiak. Amaiak prestatu du zerrenda.
- Fruta eta gutuziak. Junek prestatu du zerrenda.
- Barazkiak. Josuk berak prestatu du zerrenda.

  Komentatu zure erantzunak lagun batekin.

### 2.2. Turista pareak aukeratu laburpena

  Entzun orain audioaren bigarren zatia eta aukeratu laburpenik egokiena.

A.- Bi neska gazte turista hurbildu zaizkie Josu eta Alexi, hondartza non den galdetzeraz. Mutilek azalpenak emango dizkiete, maparen laguntzaz, non dauden azalduz eta hondartzarako bidea erakutsiz.

B.- Alexek bi neska turista ikusi ditu mapa hartuta eta Josuri neskengana joateko esango dio. Kanpokoak dira eta kanpinean daude, baina hondartzarako bidean galdu egin dira. Hondartzaraino laguntzeko eskatuko diete mutilei.

C.- Bi neska turista galdu dira Josu eta Alexen herrian eta mutilak neskei laguntzen saiatuko dira, baina nesketako bati ez zaio gustatuko Alexek hondartzaraino lagundu nahi izatea. Azkenean, antzarak ferratzera bidaliko du!



  Komentatu zure aukera lagun batekin.

## ENTZUN ONDOREN

3.1 Jarri arreta hizkuntzan:    

-  Josuk eta Alexek laguntza eskaini diete kalean topatu dituzten bi turistei. Hauek, ordea, ez dituzte mutilak gogo onez hartu:



### Laguntza eskaintzeko

Norbaiti lagundu nahi diogunean, honelako esaldiak erabiltzen ditugu:

- Laguntzarik behar al duzue? / ¿Necesitáis ayuda? (*laguntza/ayuda=izena/sustantivo*)
- Ez al duzue nahi laguntzea? / ¿No queréis que os ayude(mos)? (*laguntzea/ayudar=aditza/verbo*)



### Laguntzari ezezkoa emateko

Egindako eskaintzari ezezkoa emateko, honelako esaldiak erabiltzen ditugu:

- Ez da beharrezkoa / *No hace falta-* (Tonu normalean)
- Zoaz pikutara! / *Vete a la mierda-* (Haserre gaudenean)



3.2. Esaldiak sailkatu    

 Segidan dituzun esaldiak sailkatu eta koadroan kokatu:

Esaldiak	Laguntza eskaintzeko	Laguntzari erantzuteko
Laguntzea nahi al duzu?	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
Galduta? Nik lagunduko dizuet	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
Eskertzen dizugu zure laguntza	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
Eskerrak zure laguntza dugun, bestela...	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
Gustura lagunduko dizuet! Nora joan nahi duzue?	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
Mila esker zure laguntzagatik, baina moldatuko gara.	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
Laguntzarik behar al duzu?	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
A ze laguntza eman diguna! Hobe dugu beste bati galdetzea.	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>

  Komentatu jarri dituzun erantzunak lagun batekin.

3.3 Zoaz pikutara!    


  Entzun berriro audioaren bigarren zatia eta esan: Zer esalditan ikus daiteke neskek ez dutela mutilen laguntzarik nahi?

 Hemen jaso:

\_\_\_\_\_

 Nolako tonua erabili dute, normala, haserre...?

\_\_\_\_\_

 Ezagutzen al duzu jendeari ezetz esateko beste formularen bat? Zein?

Hemen jaso:


Tonu normala erabiliz: \_\_\_\_\_

Haserre samar gaudenean: \_\_\_\_\_

  Komentatu lagun batekin zure erantzunak.



3.4. Aizu, gorra zara, ala?   

 Pentsatu norbaiten laguntzari ezezkoa eman diozun azkeneko aldi(et)an zer gertatu zen. Zer esan zenuen? (gaztelaniaz ere apuntatu dezakezu).

\_\_\_\_\_

*Adibidez:*

- ❖ *Laguntzarik behar al duzu?*
- *Eskertzen dizut, baina ez, moldatuko naiz.*

   Gelako guztien artean ezezkoa emateko esaldien zerrenda osatu eta euskaraz idazten saiatuko zarete.

\_\_\_\_\_

\_\_\_\_\_

\_\_\_\_\_

\_\_\_\_\_

